

Asteburuetako Aisialdia

"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 urte, ehundaka zapatu dibertigarri

"XVI. San Fermin Txiki Eguna"

2016 ko

Txostena



AURKIBIDEA:

SARRERA

**EGUTEGIA ETA GARATUTAKO
PROGRAMA**

AURREKONTUA

BALORAZIOA

KARTEL BEREZIAK

ARGAZKIAK

SARRERA

SARRERA

Hamalau urte igaro dira jada bi mila eta bi garren urtetik gaur egun arte Gernika-Lumoko Udalak eta Urdaibai Eskola Elkarteak “Asteburuan Euskaraz” lelopean “Asteburuetako Aisialdia” eta “Non Zapatuan Gaztelekuan” egitasmoekin elkarlanean dihardugula, urtetik urtera gauza berriak eta ohiko bihurtu diren ekintzak proposatuz eta garatuz.

Hala ere 2016 urte honetan 2015 urtean Asteburuan Euskaraz Egitasmoan pairatutako aldaketa nabarmenekin jarraitu dugu. Naiz eta aurretako urteetako emaitzak oso onak izan Gernika-Lumoko Udaleko Gazteria Arloak egindako aurrekontu murrizketak direla eta egitasmoa burutzeko babes ekonomikoaren 45,39% galdu da. Horrek, egitasmoaren birmoldaketa bat adostu beharrera eraman gaitu hurrengo ondorioekin:

- Lehen **Asteburuan Euskaraz** zeritzon egitasmoa eta bere barnean “Asteburuetako Aisialdia” eta “Non Zapatuan Gaztelekuan” egitasmoak biltzen zituena, **Asteburuetako Aisialdia** deitzera pasatu da eta bere barnean “Non Zapatuan Gaztelekuan” eta uztaillaren zazpiko “San Fermin Txiki Ospakizuna” biltzen ditu.
- 2015 urtera arte asteburuetan garatzen ziren irteera, tailer, jolas eta orokorrean aisialdiko ekintza piloa egitasmotik kanpo eta Gernika-Lumoko Udaleko Gazteria Arloaren babesik gabe geratu dira.

“Non? Zapatuan Gaztelekuan” egitasmoari dagokionez azkeneko urteetan izandako esperientzia positiboan oinarrituz, Urdaibai Eskola Elkarteak, Gernika-Lumoko Udaletxeko Gazteria Arloarekin elkarlanean, iragandako 2016. urte honetan zehar egitasmo honi jarraipena eman dio. Urdaibai

Eskola Elkartea dinamizazioaren atalaz arduratu da. Aurtengoa “Non? Zapatuan Gaztelekuan” egitasmoaren 12. urteurrena izan da.

Iraganean proiektu honen helburua, zapatuetan gazteei 20:00tik 24:00ra aisialdirako eta dibertsiorako alternatiba bat eskaintzea izan da. 2014 urtean, 2013ko azaroan erabiltzaileek eskatuta eta guztion oneritziarekin, ordutegia 19:00tik 23:00ra aldatu zen, beti ere erabiltzaileen beharrietara moldatzeko eta zerbitzu hobea emateko asmoarekin.

2004. urtean Gernika-Lumoko Gaztelekuan lehenengoz garatu zen kanpaina hau, 14-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta zegoen, hala ere, 2005ean eskaintza eta eskaria aztertu eta gero 12-18ra zabaltzea erabaki zen. Gaur egun horrela jarraitzen du.

Zapatuetan Gaztelekua dinamizatzearekin, 12-18 urteko gazteei batzeko leku bat eskaini eta ekintza kopuru zabal bat garatzeko aukera eman nahi izan da. Iazko garapen sistema egonkortzeko orain arteko zapatu bakoitzeko ekintza konkretuez gain, “Billar Liga”, “Futbolin Liga” eta “Mahai-Tenis Liga” finkoak ere sortu ditugu, non, gazteek taldeetan izena eman eta gero zapatuetan saiatzen dira.

Honez gain, bideo kontsolen azkeneko teknologiez baliatuz, banaka eta taldeka, dantza eta mugimendu joko dibertigarriak garatu dira.

Jakina den egoera ekonomiko negatiboak eragindako ondorioak ere sufritu ditugu eta aurreko urtetik jasotako diru-sarreraren murrizketa dela eta moldaketak egin behar izan dira, hala ere, aurreko urtetan garatutako ekintza kopurua ahal izan dugun heinean mantentzen ahalegindu gara.

“San Fermin Txiki” ospakizunari dagokionez, aurtengoa hamabostgarrena izan da. 2000. urtetik gaur egun arte uztailek 07an Gernika-Lumoko plaza batean batzen gara goizean zehar San Fermin Txiki ospatzera. Mozorrotu, abestiak ikasi, abestu, pregoia, entzerrua eta berriz abestu ostean “zezenekin” argazkiak ateratzen ditugu.

Ospakizun hau 2015 arte garatzen zen “Asteburuetako Aisialdia” egitasmoaren barruan Gernika-Lumoko Gazteria Arloaren babesaren izaten jarraitzen duen ekitaldi bakarra da.

EGUTEGIA ETA GARATUTAKO PROGRAMA

2016ko EGUTEGIA ETA GARATUTAKO PROGRAMA

Azpian agertzen da 2016 urteko kanpainaren egutegia. Ordutegia 19:00-23:00 izan da. San Fermin Txikik ospakizunak goiz osoko iraupena izan du.

<u>URTARRILA</u> Urtarrilak 09, Zapatua Urtarrilak 16, Zapatua Urtarrilak 23, Zapatua Urtarrilak 30, Zapatua	<u>EKAINA</u> Ekainak 4, Zapatua Ekainak 11, Zapatua Ekainak 18, Zapatua (Egun Berezia)
<u>OTSAILA</u> Otsailak 6, Zapatua Otsailak 13, Zapatua Otsailak 20, Zapatua Otsailak 27, Zapatua	<u>UZTAILA</u> Uztailak 7, San Fermin Txiki <u>IRAILA</u> Irailak 24, Zapatua (Egun Berezia)
<u>MARTXOA</u> Martxoak 5, Zapatua Martxoak 12, Zapatua Martxoak 19, Zapatua	<u>URRIA</u> Urriak 08, Zapatua Urriak 15, Zapatua Urriak 22, Zapatua
<u>APIRILA</u> Apirilak 2, Zapatua Apirilak 09, Zapatua Apirilak 16, Zapatua Apirilak 23, Zapatua Apirilak 30, Zapatua	<u>AZAROA</u> Azaroak 5, Zapatua Azaroak 12, Zapatua Azaroak 19, Zapatua Azaroak 26, Zapatua
<u>MAIATZA</u> Maiatzak 7, Zapatua Maiatzak 14, Zapatua Maiatzak 21, Zapatua Maiatzak 28, Zapatua	<u>ABENDUA</u> Abenduak 3, Zapatua Abenduak 10, Zapatua

Ondoren 2016ean garatutako **ekintzak** aurkezten dira:

- Gaztelekuko Billar Kopa (Banaka) hasiera ekitaldia.
- Gaztelekuko Futbolin Kopa (Bikoteka) hasiera ekitaldia.
- Athletic Jaia.
- Gaztelekuko Billar eta Futbolin Kopa (Bikoteka).
- Xbox Kinect Just Dance 4 Dantza Txapelketa (4 kideko taldeetan).
- Minutu Bat Irabazteko Froga Jolasen Txapelketa.
- Inauterietarako mozorro tailerra.
- Inauteri Jaia.
- Karaokea.
- Saskibaloierregekopa finalaurrekoak zuzenean.
- Pin-Pon xprerss (6 puntura) txapelketa I.
- Jenarekin Tatuajeak Tailerra.
- Kinect Adventure Txapelketa.
- Scalextric Erraldoia.
- Udaberriko Pin Pon Txapelketa.
- Gaztelekuko Billar Kopa (Banaka) Finalak.
- Gaztelekuko Futbolin Kopa (Bikoteka) Finalak.
- Udaberriko Pin Pon txapelketa.
- Egurrezko jolas erraldoiak.
- Udaberriko Pin Pon txapelketa.
- 4 zuzenean Txapelketa.
- Ontziak Ondoratu Txapelketa
- Kamisetak Margotzeko Tailerra.
- Udako oporrei ongi etorri jaia.
- Alkoholik gabeko cocktailak.
- Musika festa.

- San Fermin Txiki Ospakizuna (Uztailak 07).
- Ongi etorri jaia.
- Play Station "Sing Star" Txapelketa.
- Neguko Futbolin Liga.
- Neguko Billar Liga.
- Pultsera Tailerra.
- Musika festa.
- Kometak egiteko tailerra (Eraiki).
- Kometak egiteko tailerra (Margotu).
- Neguko Pin-Pon xpress Txapelketa.
- Gabonetako apaingarrien tailerra.
- Musika festa.

AURREKONTUA

AURREKONTUA

“Non Zapatuan Gaztelekuan” egitasmoari dagokionez mota bitako ekintza egunak aurkitzen ditugu, batetik egitarauaren araberrako ekintza egunak non, tailerrak, jolasak, txapelketak, eta abar garatzen diren eta, bestetik, oporren hasiera eta bukaerako egun bereziak ditugu. Azken hauetan izenak dioen bezala ikasturte bukaera eta ikasturte hasiera jai bat burutzen dugu, aurrekoan egindakoak gogoratu eta proposamen berriak aurkezteko, eta nola ez, ongi pasatzeko.

“San Fermin Txiki” ospakizunari dagokienez goiz osoko iraupena izan du.

Asteburuetakoa Aisialdia egitasmoa aurrera eramateko erabilitako aurrekontua hurrengoak izan da:

Uztailak 7ko San Fermin Txiki ospakizuna	1.210 €
Egitarauaren araberrako 31 ekintza egun x 170€	5.270 €
Oporren hasiera eta bukaerako egun berezi 2 x 265€	530 €
Kanpainarako kartelak eta zabalkundea.....	150 €
Aurrekontua guztira:.....	7.160€

BALORAZIOA

BALORAZIOA

“Asteburuetako Aisialdia” egitasmoaren balorazioa egiteko lehenengo berau osotzen duten **“Non Zapatuan Gaztelekuan”** egitasmoa eta **“San Fermin Txiki”** ospakizunen balorazioa egingo dugu.

“Non Zapatuan Gaztelekuan”

Aurreko urteetan legez, proiektuaren jarraipen honek oso harrera ona izan du herriko gazteen artean, bai partaidetza, zein ekintzak garatzerako orduan erakusten duten jarreragatik ere.

Hasieratik Gaztelekuan antolatuta zeuden ekintzetan parte hartzera pila bat gazte hurbildu izan dira. Kopuruez hitz egiterakoan, zapatu oro adin ezberdinetako 80 / 160 gazte bitartean hurbildu izan dira, 80 bat gutxienez eta ehun baino gehiago gehienetan.

2013 azaroan, gazteek eskatuta, eta Gernika-Lumoko Kultur Etxeako Zuzendariarekin hitz egin ostean zapatuetako ordutegia moldatzeko erabakia hartu zen. Horrela, ordutegi berria 20:00-00:00tik 19:00-23:00ra moldatu da gazteen beharrezanean erantzun hobea emateko asmoz. Egun batzuetan 18:00 etan zabaldu da Athletic Clubaren partidak zuzenean emateko.

Denok dakigu egoera ekonomikoa zein den eta honen ondorioak ere jasan ditugu azken urteetako diru-laguntzen murrizketarekin batik bat. Moldaketak egin behar izan dira, hala ere, aurreko urteean garatutako ekintza kopurua ahal izan dugun heinean mantentzen ahalegindu gara.

Balorazioarekin bukatzeko esan dezakegu proiektu honek oso emaitza onak ematen dituela, helburuak zabal betetzen direla eta oso ondo legokeela 2016 urtean zehar proposamen honekin jarraitzea.

“San Fermin Txiki”

Uztailaren zazpian egin ohi dugun ospakizun honen aurtengo edizioa hamaseigarrena izan da. 2000. urtetik gaur egun arte uztailak 07an Gernika-Lumoko San Kristobal plazan batu ginen goizean zehar San Fermin Txiki ospatzera. Mozorrotu, abestiak ikasi, abestu, pregoia, entzerrua eta berriz abestu ostean “zezenekin” argazkiak atera genituen.

Partaidetzari dagokionez, Gernika-Lumon tradizio bihurtu den ospakizun honetan, 350 bat pertsonak parte hartu zuten.

Ospakizun hau, 2015 arte garatzen zen “Asteburuetako Aisialdia” egitasmoaren barruan Gernika-Lumoko Gazteria Arloaren babesaren izaten jarraitzen duen ekitaldi bakarra da.

“Asteburuetako Aisialdia” egitasmoa (**“Non Zapatuan Gaztelekuan”** egitasmoa + **“San Fermin Txiki”** egitasmoa) Gernika-Lumoko Udaleko Gazteria Arloko egoera ekonomikoarengatik **“Asteburuan Euskaraz”** egitasmoaren eraldaketa izan da. Hala ere, datorren 2017 urtera begira aurrekoa berreskuratzea beharrezko legokeela ikusten dugu herriko ume eta gaztetxoentzako aisialdiko eskaintzan, aurretiaz zegoenarekin alderatuta, zulo handi bat egin delako. Gaztetxo eta guraso askok aurrekoetan garatu izan diren ekintza piloa faltan bota dituztela helarazi digute.

KARTEL BEREZIAK

"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
urtarrilak 09, 19:00tik 23:00era



GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
urtarrilak 30, 19:00tik 23:00ra

Inauterietako



mozorro

tailerra



MUSIKA FESTA



GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
otsailak 06, 19:00tik 23:00ra

Inauteri Jaia



MUSIKA FESTA




GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
martxoak 19, 19:00tik 23:00ra

Kinect Adventure



MUSIKA FESTA



GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
apirilak 09, 19:00tik 23:00ra

Udaberriko Billar eta Futbolin kopa



Banaka



Bikoteka



MUSIKA FESTA



GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
apirilak 30, 19:00tik 23:00ra

Egurrezko Jolas

Erraldoiak



GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
ekainak 18, 19:00tik 23:00era

Udako oporraldiari
ongi etorri jaia !!!



MUSIKA FESTA



"Non? zapatuan Gaztelekuan"

12 eta 18 urte bitartean bazaude
Gaztelekutik pasatu zaitez zapatuan,
irailak 24, 19:00tik 23:00era

ONGI ETORRI JAIA



EZAGUTU EZAZU
GERNIKA-LUMOKO
GAZTELEKUA !!!



GERNIKA-LUMOKO
GAZTERIA ARLOA



XVI. SAN FERMIN EGUNA

SAN KRISTOBAL PLAZA

2016-07-07 
Osteguna



10:45 GURE DISFRAZA ETA ABESTIA PRESTATU



11:30 PREGOIA ETATXUPINAZOA



11:35 SAN FERMINERI ABESTU ETA...



OSTEAN ENTZERRUA



ZEZENAK: ARRAPALADAN GANADERIA



12:15 ZEZENEKIN ARGAZKIAK



12:20 "POBRE DE MI" ABESTU

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:



ARGAZKIAK

Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko eta Gernika-Lumoko Udalaren zainzapean geratuko dira.



Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.



Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.



Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.





Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.





Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.





Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTE BURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.





Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.





Oharra: Txosten honetako argazkiak “ASTEBURUETAKO AISIALDIA” txostenerako baino ez dira erabiliko.

